

Amets Zurutuza Eskisabel

D maila • 1 saria

Nire izena Amets da. 13 urte ditut eta Andramendi ikastolan ikasten dut. Nire izenak dioen bezala, amestea asko gustatzen zait. Hala ere, oraintxe bertan garbiago dut zer ez dudan nahi nire ametsetan. Nire ametsetatik urrun nahiko nituzke kutsadura eta arrazakeria ageri den mundu bat... baina batez ere, indarkeria matxistatik urrun dagoena. Denok batera elkartuz mundu hobe bat sortu dezakegulako.



ESPERANTZARIK GABEKO MUNDUA

Riiin- Riiin...

- *"Genero indarkeriak inoiz gehiago arrastorik utzi ez dezan, gizarteak seinale hau dauka... Edozein motatako tratu txarren aurrean deitu hona. 016 telefonoak bizitza berri baten hasiera suposa dezake" Bai esan?*

- (arnasestuak)

- Bai esan? Genero indarkeriaren aurkako telefonora deitu duzu... Lasai... Zu entzuteko eta laguntzeko gaude...

.... Bai, bai... baina ez dut salaketarik jarri nahi... Beldur naiz...

- Lasai. Ulertzen dut zure urduritasuna, baina lasai zaitez. Zuk kontatu nahi duzuna entzuteko nago, eta laguntza beharko bazenu eta nahiko bazenu, zu laguntzeko prest nago.

- Ez dakit nondik hasi... (negar zotinak). Eskegitzera noa... Ez nuen deitu behar...

- Hartu arnasa. Hau ez da epaitegi bat, eta ez zera ezer txarrik egiten ari... Bakarrik al zaude orain? Etxean zaude?

- (Hasperena). Bai, bai... Bakarrik nago...

- Esan lasai. Zer gertatu zaizu? Kontatu lasai esateko daukazuna hasieratik hasita.

(Isilunea eta hasperen sakona)

- Hasiera batean, dena polita eta erraza zen... nire bizitza beste edozein neskarena bezalakoa zen. Lagunekin oso ondo moldatzen nintzen, eta egunero haiekin egoten saiatzen nintzen. Plan asko egiten nituen haiekin, askotan hitz egiten nuen... (Isilune laburra). Beti zorte handiko pertsona nintzela sentitu izan dut, nirea bezalako bizitza bat egokitu zitzaidalako. Nirea eta ez beste inorena... Baina orain... (negar malkoek eragindako etenunea eta isilunea)... beste norbaitena naiz!

- Hartu arnasa! Zu zeu izateko urratsa hartu duzu... Norbaitekin hitz egiteko aukerarik izan al duzu lehenago?

- Ez... Bai... (*zalantzan, ezeroso*). Ez dakit... Dena hain nahasia da...

- Lasai, oso ondo ari zara, benetan! Noiztik zaude egoera honetan?

- Duela urtebete ingurutik... Kontua sare sozialen bidez hasi zen. Nire lagun batek jendea ezagutzeko aplikazio bat aurkitu zuen, eta bertan erregistratzera animatu ninduen. Berehala "harrapatu" ninduen aplikazio hark, egia esateko. Jolas bezala hartu genuen nire lagunak eta biok, eta pertsona asko ezagutzeko aukera izan genuen... Beste ikastetxeetakoak, beste herrietakoak... Noizbait biok batera ere gelditu izan ginen haietako bateren batekin... Baina gauzak asko aldatu ziren bera ezagutu nuenean...

(*Hasperena eta isiltasun luzea*)

- Bai? Hor zaude? Ondo zaude?

- Barkatu... ezarrian daukadan korapiloak ez dit hitz egiten uzten... Bere eskuek adina estutzen nau...

- Lasai, primeran ari zara! Jarraitu, mesedez.

- Esaten ari nintzen bezala, aplikazio txatxu horren bidez jarri zen nirekin harremanetan... Eta nik, tuntun honek, arriskuez ohartu gabe ergel maten moduan jokatu nuen... Denboratxo bat elkarrekin txateatzen egon ondoren, elkar ezagutzeko gelditu ginen... Oso zentzugabea izan nintzen bakarrik joateko elkarrekin gelditu ginen tokira, baina... Itsututa nengoen eta joatea erabaki nuen.

- Zuk ez duzu ezeren errurik. Jarraitu nahi duzu?

- Bai... (*hasperen luzea*). Lehen zita hartan oso inpresio ona egin zidan mutil hark. Oso jatorra iruditu zitzaidan. Askotan gelditzen ginen, eta ni behintzat oso gustura egoten nintzen berarekin. Handik hilabete batzuetara, bere neskalguna izateko eskatu zidan. Ni orduan ez nintzen ezertaz jabetzen, eta asko gustatzen zitzaidanez, baietz esan nion. Geroz eta gehiago egoten ginen elkarrekin. Lagunak eta etxeakoak ere atzean utzi nituen berarekin egoteko... Eta hori izan zen nire akatsik handiena... Lagun eta etxeakoengandik urruntzea... (*hasperen sakona*)

- Bai, zoritxarrez hala izaten da...

- Dena bere inguruan egiten nuen... Eskolatik irten eta berarekin elkartzen nintzen zuzenean... Eskolaz kanpoko saioetara joateari utzi nion, asteburu osoa berarekin pasatzen nuen bere gustuko gauzak egiten... (*Hasperen sakona*). Ondorioz, lehenik eta behin ikasketetako nire maila jaisten hasi zen... ikasturtea errepikatzeraino!

- Eta dena ez zen hor bakarrik gelditu...

- Hala da... (*Beste hasperen sakon bat*). Familiakoak eta lagunak saiatu ziren niri ulertarazten hori gehiegizkoa zela... baina ez nien jaramonik egiten... (*Negar zotin ozena*).

- Itsututa gaudenean, ez gara ingurukoek esaten dutenetaz jabetzen, ezta?

- Hala da... Badakit ulergaitza dela, baina nahi nuen gauza bakarra bere maitasuna zen. Ustezko zoriona ematen zidan, baina orain konturatzen naiz zerbait proposatu edo lagunekin gelditu nintzela esaten nionean nolako gauzak esaten zizkidan: "Ez al nauzu maite?" "Ez al dizu axola

nik zer nahi dudan?”, “Zu zara nire bizitza”, “Zu gabe ezin naiz bizi”, “Ez bagara elkarrekin egoten utzi egin beharko dugu”... Horrelako gauzekin erraz konbentzitzen ninduen “berarentzat soilik” izateko.

- Bere kontrolpean zeuden...

- Eta hura hasiera izan zen! Gero, telefonoa kontrolatzera iritsi zitzaidan! Berarekin ados ez banengoen eskua jasotzen zidan, eta sekulakoak esaten zizkidan... Eta handik gutxira indarkeria fisikoa ere etorri zen (*arnasestu ozena*). Gogoan dut eman zidan lehen aurpegikoa... eta gogoan dut behin, lagunekin kafe bat hartzeko gelditu ostean kotxetik bota eta errepide erdian utzi ninduenekoa... (*isiltasuna eta arnasestu ozenak segidan*)

- Mediku laguntzarik behar al duzu? Arnasestu horrekin antsietate atake bat duzula dirudi. Badakizu 112arekin zuzenean pasa zaitzakedala...

- Ez!! Ez!! (*Isiltasuna. Ez dago arnasestu gehiago*). Behingoz barruak hustu beharra dauzkat... Eta minari hitzak jarri.... Tratu txarrak jasotzen ari naiz maitasunaren izenean. Gezurrezko maitasun honek itsututa eduki nau eta bera aldatuko denaren hitz politak sarri sinetsi izan baditut ere... Bukatu da! (*Geroz eta ozenago*). Ez naiz “berea”, eta nire buruaren jabe izan nahi dut! (*Oihua*). Infernu honetatik ihes egin nahi dut! Lagundu ihes egiten, mesedez!!!

- Ados. Lasai. Baina momentu honetan zure egoera fisikoa ona al da? Zaurituta zaude? Laguntza fisikoa behar al duzu?

- (*Lasaiago*). Ez. Ongi nago... nekatuta... baina ongi.

- Ongi, beraz, ez eskegi eta arlo judiziala daraman sailarekin pasako zaitut. Haiek zehatzago lagunduko dizute, orain zer urrats eman behar dituzun jakiteko. Zorionak emandako pausuarengatik.

- Eskerrik asko zuri...

- Oso ausarta izan zara. Animo eta zorte on!

Klik!

Mirenek, 016ko langileak, telefonoa eskegi eta ordulariari begiratu dio. Bere txanda bukatu da eta etxera joan ahal izango du. Baso bat ur edan du, begiak lehortu ditu eta mukiak astindu ditu. Berokia jantzi eta poltsa hartuta etxerantz abiatu da.

Ilun dago kalean eta hotz egiten du. Berokia goraino itxi du haizea barruraino sartzen zaio eta. Autobus geltokian ordu laurden egon da zain, lineako 23. autobusa etorri bitartean. Luze egin zaio, baina egia esan, nahiago luke denbora luzeagoan itxaron.

Iritsi da bere geldialdira eta portalera zuzendu da segituan. Igogailuan hirugarren solairura igo, eta bere giltza sarrailan sartu du...

- Zer ostia? Zer ordu dira hauek etxera etortzeko!!! -ahots zakar batek egin dio ongi etorria -. Afaririk ere ez didazu prestatuta utzi!

Miren egongelaraino hurbildu da... beldurrez.

- Norekin egon zara orain arte? Esan!!! Erakutsi mugikorra -indarrez kentzen dio mugikorra -.

Ea deiak eta WhatsApp mezuak... Ander? Nor demontre da Ander?

Miren negar zotinka dago. Bat-batean, mugikorraren kolpea sentitu du bere ezkerreko bekain gainean...

- Banoa kalera zigarro bat erretzera, zure ondoan egotea baino hobea da eta! Nazka ematen duzu! Eta utzi negar egiteari eta hasi afaria prestatzen behingoz...

Danbateko batez itxi du atea. Miren bakarrik gelditu da. Orduan bere sakelakoa hartu eta telefono zenbaki bat markatu du... Ahots honek erantzun dio:

- *"Genero indarkeriak inoiz gehiago arrastorik utzi ez dezan, gizarteak seinale hau dauka... Edozein motatako tratatu txarren aurrean deitu hona. 016 telefonoak bizitza berri baten hasiera suposa dezake" Bai esan?*